



A28ko HAUTESKUNDE OROKORRAK KANPAINA

A. Gazteria emantzipatu baten alde: Enplegu, prekarietate edo etxebizitza bezalako alor ekonomikoagoetako neurriak biltzen dituen ardatza.

4. Gazteen langabezia eta lan prekarietatearekin amaitzea:

- o Gazteen kontratazioan behin-behinekotasuna eta behartutako partzialtasuna murrizteko planak.
- o Independentzia ekonomikoa izateko ordainsari duina duten kalitatezko enpleguak bermatu gazteriari bere bizitza proiektua garatzea ahalbidetzeko
- o Bekarekin edo praktiketan dagoen pertsonaren estatutua sortu hauen eskubideak arautzeko.

5. Gazteriarentzako etxebizitza-planak: etxebizitzara sarrera errazten eta gainzorpetzea saihestuko duten politikekin

- o Gazteontzako alokairu-prezioen jaitziera, euren soldataren %30a baino gutxiago izan daitezten.
- o Estatu osoan etxebizitza- publikoko parkeak gaitu.
- o Etxebizitzari buruzko informazio- eta aholkularitza-sistemak areagotzea.

B. Parte hartzen duen gazteria baten alde: prozesu demokratikoak eta erabaki hartzeak hobetzea eta sakontzera bideratuko neurriak biltzen dituen ardatza.

1. Gazteriarekin elkarrizketa: politiketara gazteria-ikuspegia zeharkakotasunez txertatzeko

- o Gobernu Presidentetzarekiko mendekoa den figura bat sortu gazteriaren koordinazio errazteko ministerioen eta lurraldeen artean.
- o Gazteriaren estrategia espainiarra sortzea gazteriaren parte-hartzearekin.
- o Sozietate-zergatik gazteriara bideratutako partidak gazte-elkarteekin koordinatu.

2. 16rekin bozka eskubidea:

- o Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren aldaketa hauteskunde orotan bozka 16 urtetik aurrera finkatzeko.
- o Hezkuntza herritarrerako neurriak areagotu.

10. Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren (CJE) erregulazio-legea: gazteriaren ahotsa bideratu duen parte-hartze espazio pluralak denboran egonkorra izango den erregulazioa behar du.

- o CJEren parte-hartzea izango duen Lege bat onartzea.
- o Aurrekontuz hornitu.
- o CJErekin konprometitu, bere pluraltasunean gazteriaren errepresentazio-espazio bezala

C. Eskubide sozial eta ekologikoak dituen gazteria baten alde: aukera berdintasunaren bermearekin eta ingurumenaren defentsarekin zerikusia duten neurriak biltzen dituen ardatza.

3. Beka- eta ikasketetarako laguntza-sistemaren erreforma: hezkuntza sistema sarreran eta ibilbidean ezberdintasunak saihesteko, bereziki etapa ez unibertsitarioetan.

- o Atalaseak berrikusi pobrezia arriskuan dauden familia guztiak babesteko.
- o Laguntzaren kontzeptuak berrikusi eta kopuru finkoak ezarri.
- o Kudeatzeko denborak murriztu eta efizientzia hobetu.

6. Energia Trantsizioko eta Aldaketa Klimatikoko Legea:

- o Kanpo dependentzia energetikoa murrizteko plana kontsumoa %100ean energia berriztagarrietan oinarritu dadin.
- o Produkzio sektore garrantzitsuetan emisioen kontrol eta murrizketa hauek Ora jo dezaten.
- o “Enplegu berdea” sustatu gazteriarengan, bereziki energia, turismoa eta lehengaien transformazioa bezalako sektoreetan.

7. Jokoaren lege integrala:

- o Apustu-etxeen publizitatea debekatzea, baita hauek institutu, parke eta mendekotasunen tratamendurako ospitale eta zentroetatik gertu kokatzea.
- o Ludopatiaren prebentziorako estrategia gazteriaren arloan atentzio berezia ezarriko duten neurriekin.
- o Aisialdi eta astialdiko politika osasungarrien lurralde arteko sustapena eta koordinazioa.

8. Adimen-osasuna: asistentzia sarera gazteriaren irisgarritasuna areagotu, bereziki lehen arretako zentroetan, kontakturako bideak hobetuz eta erraztuz

- o Autonomia Erkidegoekin programa bat abiatzea osasun zerbitzuen lehen mailako arreta eta ikastetxeen zerbitzu sozialak hobetzeko.
- o Bizitzako etapa guztietara moldatua dagoen sexu osasunari eta sexu eskubideei buruzko informazio fidagarria eta irisgarria eskaini lehen arretako osasun zerbitzuaren, farmazia komunitarioaren, ikastetxeen eta gazte informazio sarearen bitartez.
- o Adimen-osasun programak koordinatu eta jarraituko dituen tresna sortu eta prebentzio neurriak ezartzeko baliabideak probestu.

9. Boluntariotzaren aitorpena gazterian:

- o INCUALeko katalogoa zabaldu boluntariotzako eta gazteriako prestakuntzekin.
- o Boluntariotza Legearen arauzko garapena gazteriaren espezifikotasuna jarritz.
- o Administrazioen Hezkuntza Ez Formala koordinatu eta honi buruz hausnartzeko espazioak sortu